

## 2018-2019 PRESTAKUNTZA PLANA

### PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA

**Izenburua:**

“Diseinua 3D Inventor (oinarrizko maila)”

**Modalitatea:** Mintegia

**Etapia:** Lanbide Heziketa

**Norentzat:** Lanbide Heziketako irakasleak

**Antolatzailea:** Iruñeko ILZ

**Justifikazioa:**

Programaren erabilera hainbat Lanbide-Heziketa-Zikloko curriculum-ean sartuta dago.

**Xedea:**

3D-etako diseinu erreminta desberdinak ezagutzea eta erabiltzea

**Edukiak:**

- Programaren interfazea
- Pieza prismatikoko diseinua
- Iraultza-pieza diseinua
- Lan-operazio simple eta konplexuak
- Muntadurak

**Metodologia:**

Konbinatuko dira gelan emandako azalpen teorikoak eta adibide eta lan praktikoak, etxean landutako beste zenbait ariketekin. Saio bakoitzaren hasieran aurreko saioan proposaturiko ariketatik sorturiko zalantzak ebatziko dira eta materia aurreratzen jarraituko da.

**Irakasleak:**

Narciso Marín Chocarro y Daniel Huarte Rodríguez

**Arduraduna:**

Eva Agudo Arrarás, Iruñeko ILZko aholkularia.  
[cap00110@educacion.navarra.es](mailto:cap00110@educacion.navarra.es) - 848 431227

**Tokia:** Virgen del Camino IIP

**Data:** Apirilak 29 eta maiatzak 2, 6, 9, 13, 16, 20 eta 23 (astelehen eta ostegunak)

**Ordutegia:** 16:00h-19:00

**Iraupena:** 30 ordu (bertaratu beharreko 24 eta bakarkako lana egiteko 6.)

**Leku kopurua:** 18

**Parte-hartzaileen gutxienerako kopurua:** 15

**Izena emateko epea:**

Izena emateko azken eguna apirilaren 14a izanen da; esteka honetan egin behar da:  
<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/inscripciones-3/>

**Hautatzeko irizpideak:**

- Lehendabizi, bere lanpostuan ikastaroaren edukiekiko zuzeneko erlazioa duten LHko irakasleak, aurretik ez badute egin prestakuntza hau, izen ematearen arabera.
- Bigarren lekuan, bere lanpostuan ikastaroan edukiekiko zuzeneko erlazioa duten LHko irakasleak, izen ematearen arabera.
- LHko gainontzeko irakasleak, izen ematearen arabera.
- Gainontzeko irakasleak, izen ematearen arabera.

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Oharra:**

- Aurrerantzean prestakuntza jarduerekin zerikusia duten ohar zein mezu guztiak Hezkuntzako Sare Publikoko irakasleek duten PNTE kontu ofizialera bidaliko dira ([usuario@educacion.navarra.es](mailto:usuario@educacion.navarra.es)). Irakasleak Ikastetxe pribatu eta itunduetako irakasleei Educan ezarria duten helbide elektronikora iritsiko zaizkie abisu eta jakinarazpenak.
- Izena emateko epea amaituta, ahalik eta lasterren argitaratuko da jarduera honetarako onartuen zerrenda, honako web-orri honetan:  
<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/onartuen-zerrenda/>
- Irakasle bat jarduera egiteko onartu, baina ezin baldin badu egin, mezu elektronikoz jakinarazi beharko dio deialdian ageri den arduradunari, hasi baino lehen baja emateko. Bestela zehapen-prozesua abiaraziko da, eta irakaslea ezin izanen da 5 hilabetez sartu izena emateko plataforman; ondorioz, galduko du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak antolatzen dituen prestakuntza jardueretan izena emateko aukera. Zehapena jasotzen duenak berdin-berdin izanen du ikasturtean prestakuntzako 35 orduak egin beharra.
- PNTEren urrutiko prestakuntzako ikastaroei dagokienez, ikastaroa hasten den egunetik 15 eguneko epean irakasleak ez badu "Nahitaezko lana: aurkezpena" izenekoa egin eta entregatzen, automatikoki baztertuko da ikastarotik. Baztertuz gero, gorago aipatutako zehapen-prozesu bera aplikatuko zaio.
- Prestakuntzarako eskubidea izateko, jardunean egon behar dute irakasleek, eta

haiei baizik ez zaie ziurtatuko; salbuespena amatasun, adopzio eta harreraren ondoriozko lizentzia duten irakasleak dira, abuztuaren 23ko 71/2017 Foru Dekretuan ezarri bezala. Aldi baterako ezintasun-egoeran egonez gero, ezinezkoa da prestakuntzara joatea.

- Ziurtagiria eskuratzeko, bertaratu beharreko saioen %85era joan beharko da, eta saio bakoitzaren sinaduren orrian bolaluma ezabaezinarekin sinatu. Ez da kontuan hartuko sinatu ez den saiorik; hau da, ez da onartuko bestelako bertaratze-ziurtagiririk. Prestakuntzaren diseinuan lan praktikoa bat egitea sartuta badago, bertaratzeaz gain, nahitaezkoa izanen da lanak aurkeztea ziurtagiria lortzeko.